

ELKARLANEAN-ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZA PROGRAMA 2018

Helburua (3. art.)	Itzuli behar ez diren diru-laguntzak eskaintzea : a) lankidetzan sortutako berrikuntza-proiektuak egiteko partzuergoko enpresen artean, arriskuak partekatuta. b) enpresa batzuen artean identifikatutako negozio-aukeren bideragarritasun tekniko, ekonomiko eta legalari buruzko azterlanak egiteko.																
Erakunde onuradunak (4. art)	Enpresak, jarduera nagusia hauetariko bat badute: Industria, Eraikuntza, Industriari lotutako zerbitzuak, Turismoa eta Handizkako merkataritza baldintza hauek betetzen direnean: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Sozietatearen helbidea eta zerga-helbidea Bizkaian izatea.. ▪ Gutxienez ekoizpen zentro bat edo balio erantsi handiko zentro bat Bizkaian izatea. ▪ 5 eta 100 pertsona arteko plantilla edukitzea lanaldi osoan, baina betiere urteko kopuru baliokideetan. ▪ Honako bi muga hauetako bat, gutxienez, ez gainditzea: <ul style="list-style-type: none"> ○ Urteko negozio kopurua: 20.000.000 €. ○ Balantze orokorra: 20.000.000 €. Aurreko baldintzak betetzen ez dituzten baina proiektuan parte hartzen duten enpresak izango dira dekretuko kapitulu honen onuradunak, baldin eta guztiek egindako gastuak diru-laguntza jaso dezaketean oinarrituko gastu osoaren % 20 gainditzen ez badu. <ul style="list-style-type: none"> ▪ Zerga betebeharrak, G. S.-kikoak eta diru-laguntzak itzultzearen ondoriozkoak eguneratuta edukitzea. 																
Diru-laguntza jaso dezakeen egitatea (5. Art.)	Diruz lagunduko dira lankidetzan sortutako berrikuntzaren alde baliabide eta arriskuak partekatuz enpresa batzuen artean eginiko proiektuak. Horren arabera, bi proiektu mota aurkeztu ahal izango dira, haien garapen-fasea kontuan hartuta: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Lankidetzan sortutako berrikuntza-proiektuak, enpresen negozio-estrategiekin koherente direnak. ▪ Enpresa batzuen artean identifikatutako negozio-aukeren bideragarritasuna aztertzea berrikuntza-proiektuak sortu ahal badira. Sailarekin interlokutore aritzeko, erakunde liderra izango da proiektuaren barruan gasturik handiena egiten duen enpresa.																
Diru-laguntza jaso dezakeen egitatea (6. art)	<ul style="list-style-type: none"> • Proiektuan diharduten langileen ondoriozko gastuak; enpresako eta hileko gehienez ere 80 ordu hartuko dira kontuan (baita enpresako 2 pertsona gehienez ere) • Proiektuari loturiko kanpoko gastuak 																
Diru-laguntzen zenbatekoa (7., 20. eta y 3. Azken xedapena)	<table border="1"> <tr> <td></td> <td style="text-align: center;">Kostu mota</td> <td colspan="2" style="text-align: center;">Diru laguntzaren %</td> </tr> <tr> <td></td> <td></td> <td style="text-align: center;">35-50 puntu</td> <td style="text-align: center;">51-100 puntu</td> </tr> <tr> <td></td> <td style="text-align: center;">Barneko gastuak</td> <td rowspan="2" style="text-align: center;">40%</td> <td rowspan="2" style="text-align: center;">60%</td> </tr> <tr> <td></td> <td style="text-align: center;">Kanpoko gastuak</td> </tr> </table>		Kostu mota	Diru laguntzaren %				35-50 puntu	51-100 puntu		Barneko gastuak	40%	60%		Kanpoko gastuak	Dekretu honetako laguntzaren gehieneko zenbatekoa 60.000 € izango da eskabide bakoitzeko. Emango den aurrekontuko zuzkidura bakoitzeko kopuruaren % 75arte, laguntzaren emakida onetsitakoan eta gainontzekoa, 2019an, proiektua justifikatu ondoren. Berez dagoen aurrekontua: 628.000 €	
	Kostu mota	Diru laguntzaren %															
		35-50 puntu	51-100 puntu														
	Barneko gastuak	40%	60%														
	Kanpoko gastuak																
Balorazio irizpideak (8. art.)	Onartuak izateko, proiektuek 35 puntu lortu beharko dituzte, gutxienez, irizpide hauen arabera: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Proiektuaren garrantzia partzuergoko enpresentzat (15 puntu) ▪ Proiektuaren berrikuntza maila (40 puntu) ▪ Lankidetzan-partzuergoa (30 puntu) ▪ Aurkeztutako proiektuaren kalitatea (10 puntu) ▪ Enpresek ingurumenarekin, erantzukizun sozialarekin eta berdintasunaren sustapenarekin duten konpromisoa (5 puntu) 																
Diru-laguntzak emateko araubidea	159/2017 Foru Dekretua, abenduaren 19koa (BAO 242 zk., 2017ko abenduaren 21koa). Norgehiagokako araubidearen prozeduraren bidez emango dira diru-laguntzak.																
Epeak (15. eta 16. art.)	Proiektuak 2017ko urtarrilaren 1etik 2019ko ekainaren 30era bitarteko epearen barruan hasi eta amaitu behar dira. Eskabideak aurkezteko epea apirilaren 9an hasiko da, eta 2018ko apirilaren 27an amaituko da, 13:30ean. Eskabideak eta gainerako dokumentazioa Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko Bulego Birtualaren bidez egingo da (www.bizkaia.eus/sustapena-bulegobirtuala). Horretarako sinadura elektronikoa izan beharko duzu (Izenpe, ONA, NAN elektronikoa, FEA...), Bizkaibai zerbitzuan alta emanda egotea edo B@kQ ziurtagiri elektronikoa erabiltzea; ziurtagiri hau Orueta Apezpikuaren kaleko 6.ean eska daiteke. Eskabidea aurkeztean denean, aurkeztu beharko dira eskabidearekin eta proiektuaren memoriarekin batera alderdien arteko lankidetzak-akordioa eta Dekretuan zehaztutako administrazio-agiriak.																